

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak oniritzia eman dio Nafarroako toponimia ofizialaren erabilerari eta adierazpen grafikoari buruzko foru-dekretuaren proiektuari

Testua Nafarroako Kontseiluari bidali zaio irizpena eman dezan, eta irizpideak bateratzea eta irizpideok nazioarteko arauetara egokitzea du xede

Asteartea, 2017.eko azaroak 28

Gaurko saioan, Nafarroako Gobernuak adostu du aintzat hartzea Nafarroako herriguneeen izendapenak erabiltzeko eta grafikoki adierazteko irizpideak ezartzen dituen foru-dekretuaren proiektua, Nafarroako Kontseiluari bidaltzeko irizpena eman dezan (behin betiko onartzeko egin behar den azken urratsa).

Araudiaren xedea da Euskararen Foru Legea aplikatuz onartu diren gaztelaniazko eta euskarazko izendapen ofizialak bateratzea eta arautzea, bai eta haiek idaztean erabiltzen diren zeinu grafikoak behar bezala erabiltzen direla bermatzea ere.

Gaur egun, badira izendapen ofizial simple edo bakarrak, hala nola Castejón, Elizondo, Leitza eta Lodosa, bai eta izendapen ofizial elebidunak ere, hala nola Abaurregaina/Abaurrea Alta, Doneztebe/Santesteban, Pamplona/Iruña eta Puente la Reina/Gares.

Baina, urteen joanarekin araudi desberdinak onartu direnez, erabilera ez-bateratuak eta arauari egokitu gabeak egiten dira.

Dekretu-proiektuaren helburua da toponimia ofizialaren erabilera arautuko duten zenbait irizpide finkatzea, edozein administrazio publikok edo pertsonak modu bateratuan erabil ditzan.

Zehazki, estatuko eta nazioarteko gidalerroek finkatzen dituzten irizpideak aplikatzea proposatzen da.

Proposamena informazio publikoan geratu da, Foru Komunitateko administrazioaren departamentu guztietan kontsultatu da, eta Toki Araubidearen Foru Batzordeak eta Euskararen Nafar Kontseiluak ere baliozkotu dute.